

# BEHARGINTZA

## FORMAKUNTZA ESKAINNTZA **LEIOA**



Leioa  
BEHARGINTZA



erregimenak, gaitzak, irakaskuntza eta  
berrantolaketak erabiltzen dituen  
desarazterako eta erabil-  
tasun soziala gaitzak



ERIKARRAK GAITZAKIA,  
Erregimenak Gaitzakia  
EGP, zuzen erabiltzen dituztenak du

LEIOA BEHARGINTZA  
Formakuntza Eskaintza  
01700 Leioa (Bizkaia)



**2022ko IKASTAROAK**  
**IRAILA-ABENDUA**

# LEIOA BEHARGINTZA UDALA



**BEHARGINTZA LEIOA**  
Mendibil 3

94 400 41 95 - 94 400 80 51  
behargintza@leioa.eus  
[behargintzaleioa.net](http://behargintzaleioa.net)

**BEHARGINTZA LEIOA Zentrua, herri garapen ekonomikorako Leioako Udalak egindako apostu bat da.**

**BEHARGINTZA LEIOA** herri garapenerako sortutako hurbileko egitura bat izanik, trebakuntza, enplegua, enpresak sortzea, herri merkataritza, eta edozein tamainako herriko enpresen aldeko ekintzak bultzatzen bultzatzen ditu, Leioa denon kontua dela aurrez aurre izanik eta bertatik, herrikide guztiekin lan egitearen garrantzia azpimarratuz, dena ere geraldiko ekonomikoaren aurka egiteko.

## **GURE ESTRATEGIAK**

- Herri agente guztien ahaleginak bateratu.
- Lana sortu.
- Enpresa eta ekonomi aukera berriak bilatu.
- Herri ekonomiaren sektore desberdinak bultzatu.
- Tokiko agenteak garapenean informazio teknologiek duten garrantzia aintzat eduki.
- Tokiko agenteak suspertu, beraien esku makina bat tresna jarriz.

## ENPRESA SORTZEA ETA KUDEATZEA

Ekintzaitzeta-prozesua hobeto hasteko gaitasunak landu nahi dituzten udalerriko ekintzaileei zuzendutako prestakuntza

**HASIERA-DATA**  
2022/9/19

**AMAIERA-DATA**  
2022/9/30

**ORDUTEGIA**  
09:30-13:30

**ORDU KOPURUA**  
20

**PLAZAK**  
20

### SARTZEKO BALDINTZAK

Ikastaroan izena eman aurretik ezinbestekoa da ekintzaitzako teknikariarekin biltzea negozio-idea zenbateraino garatu den zehaztu eta zalantza guztiak argitzeko

### IKASTAROAREN TOKIA

Leioako enpresa mintegia

## 1 DESIGN THINKING ETA METODOLOGIA ARINAK

Design Thinking eta metodologia arinak ('Agile' izenekoak) enpresa, pertsona eta marka desberdinei aplikatzeko proposamen berritzaileak dira. Hezkuntzaren, ekoizpenaren eta merkataritzaren eremuetan aplikazio morderoa dituzte, eta benetako beharrak ulertu eta konpontzeko ideia berritzaileak sortzea dute xede

**HASIERA-DATA**  
2022/9/28

**AMAIERA-DATA**  
2022/10/14

**ORDUTEGIA**  
09:30-14:30

**ORDU KOPURUA**  
60


**PLAZAK**  
12

### SARTZEKO BALDINTZAK

Beren ezagutzak eguneratu eta/edo programak/proiektuak beste era batera jorratu eta aurkeztu nahi dituzten pertsona kualifikatuei zuzenduta dago

### IKASTAROAREN TOKIA

Behargintza Leioa



## 2 INGELES PROFESIONALA TURISMORAKO ETA SALTOKIETARAKO

Lan-eremuan ingeleseko oinarrizko ezagutzak praktikatzeko eta eguneratzeko ikastaroa. Ikastaro honetan, enpresen eta turismoaren lan-eremuan ingelesez aritzeko gaitasuna landuko da. Ingeleseko dokumentuak interpretatzea eta zuzen idaztea (gramatika eta ortografia aldetik) negozioetako hitzak erabiliz, eta ingeles estandarrean hitz egitea eta egoera formal eta informaletan mezuak adieraztea eta interpretatzea

**HASIERA-DATA**  
2022/10/03

**AMAIERA-DATA**  
2022/10/31

**ORDUTEGIA**  
09:30-14:30

**ORDU KOPURUA**  
100

**PLAZAK**  
15

### SARTZEKO BALDINTZAK

### IKASTAROAREN TOKIA

Ingeleseko oinarrizko ezagutzak behar dira (A2 / B1 mailaren parekoa). Ez da egiaztagiririk aurkeztu behar, baina sartzeko proba bat egingo da taldeak antzeko ezagutzak dituela bermatzeko

Leioako enpresa mintegia

## 3 TELEOPERADOREA ETA BEZEROAREN ARRETA

Pandemiak trantsizio digitala azkartu du, eta profil honen lan-eskaria areagotu da; izan ere, duela gutxira arte bezeroen arreta eta fidelizazio-zerbitzua aurrez aurrekoa zen. Prestakuntza teoriko-praktikoa da. Lanpostu horri dagozkion funtzioak eta zereginak ezagutzea: bezeroari telefonoz edo Internet bidez erantzutea, fidelizazio-baliabideak aplikatzea, produktuak sustatzea, zerbitzuari edo produktuari buruzko zalantzak eta arazoak argitzea, etab.

**HASIERA-DATA**  
2022/10/17

**AMAIERA-DATA**  
2022/10/28

**ORDUTEGIA**  
09:30-14:30

**ORDU KOPURUA**  
50+25

**PLAZAK**  
15

### SARTZEKO BALDINTZAK

### IKASTAROAREN TOKIA

Hizkuntza-komunikaziorako gaitasun ona eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako gradua daukaten udalerriko biztanleei zuzenduta dago

Behargintza Leioa



## ENPRESA SORTZEA ETA KUDEATZEA

Ekintzaitza-prozesua hobeto hasteko gaitasunak landu nahi dituzten udalerriko ekintzaileei zuzendutako prestakuntza. Negozio-idea aztertzea, baliabide komertzialak optimizatzea estrategia on bat garatzeko eta proiektuaren merkatu-balioa eta bideragarritasun ekonomikoa aztertzea.

**HASIERA-DATA**

2022/11/07

**AMAIERA-DATA**

2022/11/18

**ORDUTEGIA**

09:30-13:30

**KOPURUA**

35

**PLAZAK**

20

**SARTZEKO BALDINTZAK**

Ikastaroan izena eman aurretik ezinbestekoa da ekintzaitzako teknikariarekin biltzea negozio-idea zenbateraino garatu den zehaztu eta zalantza guztiak argitzeko

**IKASTAROAREN TOKIA**

Leioako enpresa mintegia

4

## HAURREN MONITOREA + ELIKAGAIEN MANIPULATZAILEA

Esparru desberdinetan haurrekin lan egiteko ezinbesteko ikastaroa (etxeetan, jantokietan, autobus laguntzailea, eskolaz kanpoko ekintzetan, etab.). Hezkuntza ez-arautuan jardunbide onak bultzatzea eta egoera horiek prebenitzea, antzematea eta jardutea, erantzun egokia eman eta emozioak kudeatzen ikastea. Halaber, elikagai-manipulatzailen txartela lortzeko balio du ikastaroak, elikagaiak manipulatzean segurtasunez jarduteko nahitaezkoa dena

**HASIERA-DATA**

2022/11/21

**AMAIERA-DATA**

2022/11/30

**ORDUTEGIA**

09:30-13:30

**ORDU KOPURUA**

35

**PLAZAK**

20

**SARTZEKO BALDINTZAK**

Ikastaro hau hezkuntza ez-arautuan (udalekuak, udako ludotekak, eskolaz kanpoko jarduerak, jantokia eta autobusa) haurrekin lan egin nahi duten udalerriko langabeei zuzenduta dago

**IKASTAROAREN TOKIA**

Leioako enpresa mintegia



## 5 IT TXARTELA ( WORD ETA EXCEL AURRERATUA)

WORD eta EXCEL ikastaro teoriko-praktiko trinkoa, KZgunean IT Txartela lortzeko ezagutzak eskuratu eta informazioaren teknologietan oinarritzko gaitasuna ziurtatzeko.

**HASIERA-DATA**  
2022/11/24

**AMAIERA-DATA**  
2022/12/02

**ORDUTEGIA**  
09:30-13:30

**ORDU KOPURUA**  
35

**PLAZAK**  
20

### SARTZEKO BALDINTZAK

Lan Eskaintza Publikoko deialdi batera aurkezteko ezagutza horiek egiaztatu behar dituen udalerriko edonork eman dezake izena, edozein prestakuntza duela ere

### IKASTAROAREN TOKIA

Leioako enpresa mintegia

## 6 OBRAKO MAKINERIA

Langabeei zuzendutako ikastaroa, logistika-, mantentze- eta/edo eraikuntza-eremuetan balio anitzeko langileak eskatzen dituzten enpresen beharrak asetzeko. Ikastaro teoriko-praktiko honetan, orga eta dumper mota desberdinak eta haien oinarritzko ezaugarriak eta erabilerari, mantentzeari eta segurtasunari buruzko araudia (LAP) jorratzen da.

**HASIERA-DATA**  
2022/12/12

**AMAIERA-DATA**  
2022/12/23

**ORDUTEGIA**  
09:30-14:30

**ORDU KOPURUA**  
90

**PLAZAK**  
12

### SARTZEKO BALDINTZAK

Udalerriko langabeei zuzendutako ikastaroa, lan-jarduera hauetakoa:

- Hornitzailea eta/edo banatzaileak
- Paketatzaileak eta etiketatzaileak
- Eskaeren prestatzaileak
- Mantentze- eta eraikuntza-lanetarako langileak


### IKASTAROAREN TOKIA

Beurko Check formakuntza zentroa (Barakaldo)



# LAN-MUNDUAN TXERTATZEKO PROGRAMA (3R)

## KUDEATZAILEA LEIOAKO UDALA- BEHARGINTZA



**Aldundiko Enplegua, Gizarteratzea eta Berdintasun sailak, Bizkaiko Udalen eta toki garapenerako agentzien bitartez, sustatutako programa, langabeei lan-munduan txertatzen lagundu eta langabeziaren behin betikotzea ekiditeko xedez. Tokiko garapenerako 3R programak hiru ekintza biltzen ditu: berriz orientatzea, lanpostu berria ematea eta prestakuntzazko eguneratzea.**

### BERRIZ ORIENTATZEA

Langabeei laguntza integrala ematean datza, enplegua bilatzen laguntzeko. Banan banako diagnostikoak egingo dira: langabearen ezaugarriak identifikatu eta haren profilari egokitutako lan-ibilbidea diseinatu eta enplegu-bilaketa aktiboan lagunduko zaio.

### LANPOSTU BERRIA EMATEA

Programaren bigarren ekintza honen helburua lan-munduan txertatzen laguntzea da; horretarako, enpresen arteko topaketak eta lan-eskaintzak identifikatuko dira, baita enpresek behar dituzten langileak ere.

### PRESTAKUNTZAZKO EGUNERATZEA

Tokiko Garapenerako 3R programa honen hirugarren eta azken ekintza langabeei oinarriko gaitasun digitalak ematea da, 40 orduko prestakuntza-ekintzen bitartez.

# IZEN-EMATE FITXA

Izen-ematea **BEHARGINZA LEIOAN** edo [www.behargintzaleioa.net](http://www.behargintzaleioa.net) web-orrialdean.  
Izen-emateak 2022ko irailaren 5etik aurrera egingo dira

IZEN-ABIZENAK: \_\_\_\_\_

\_\_\_\_\_

NAN: \_\_\_\_\_

TELEFONOA: \_\_\_\_\_

HELBIDE OSOA: \_\_\_\_\_

UDALERRIA: \_\_\_\_\_

HELBIDE ELEKTRONIKOA: \_\_\_\_\_

EGINDAKO IKASKETAK: \_\_\_\_\_

HIZKUNTZA LEHENETSIA:  EUSKARA  GAZTELANIA

BEHARGINTZA LEIOAN APUNTATUTA ZAUDE?  BAI  EZ

## IKASTAROAK

- 1 DESIGN THINKING ETA METODOLOGIA AZKARRAK
- 2 INGELES PROFESIONALA TURISMORAKO ETA SALTOKIETARAKO
- 3 TELEOPERADOREA ETA BEZEROAREN ARRETA
- 4 HAURREN MONITOREA + ELIKAGAIEN MANIPULATZAILEA
- 5 IT TXARTELA ( WORD ETA EXCEL AURRERATUA)
- 6 OBRAKO MAKINERIA
- 7 3R PROGRAMA